

INGUDE-ALTXATZE

JOKOAREN OINARRIA

Burdinazko ingudea altuera jakin batera, ahalik eta aldi gehienetan altxatzean datza joko hau.

INGUDEAREN ETA LANABESEN EZAUGARRIAK

1.art.- Txapelketarako ingudeak honako pisu hau izan beharko du gutxienez:

EMAKUMEZKOAK:

Senior: 10kg

Gazteak: 8kg


GIZONEZKOAK:

Senior: 18kg

Gazteak: 14kg

Puntatik oinarrirako altuera 320 mm-koa izango da (+ - 20 mm), eta gorputzaren luzera 360 mm-koa (+ - 5 mm), heldulekuak izan ezik. Heldulekuak leunak izango dira eta 25mm-tik 45mm-ra bitarteko diametroa eta 160mm-ko gehieneko luzera izan beharko dute. Gainera, manipulaziorik gabe goma komertzialez forratuta egon ahalko dira. Diametroak ezin izango du aipatutako neurria gainditu, eta goiko aldetik lerrotatuta egon beharko dute.

(GEHITU PLANOA)



PISUA - A±2 - BØ
18 KG - 40-25 - 45 Aprox
14 KG - 40-25 - 45 Aprox
10 KG - 40-25 - 45 Aprox
8 KG - 40-25 - 45 Aprox

2.art.- Ingudea jotzeko oinarria, goiko txaparen paralelo jarri beharko da, elondo egurrezko laukizuzen trinko bat izango da, eta 1.000 mm-ko luzera x 200 mm-ko zabalera (+-20 mm) izan beharko du. Altuera totala 200 mm-ko (+-20 mm) izan beharko du. Zutoina eta oinarriaren muturraren arteko distantzia 1.000 mm-koa (+ - 50 mm) izango da. Oinarriaren goiko aldea, 500 mm-ko luzera x 200 mm-ko zabalera x 10 mm-ko lodiera izango duen “U” formako altzairu arruntez egindako xafla batez estalita egongo da.

3.art.- Goiko xafla, bisera deitua, 500 mm-ko gutxienezko luzera x 400 mm-ko zabalera (+- 10 mm) duen txapa laukizuzena izango da. Honen eta kirolariaren buruaren arteko distantzia 30 zentimetrotakoa izango da. Zutoina eta biseraren muturraren arteko distantzia 1000 mm-koa (+ - 50 mm) izango da.

4.art.- Kirolariak norbait beharko balu plataformari heltzeko, hau epailearen agindupean arituko litzateke.

ARAUAK

5.art.- Ekitaldia 1,30 minututakoa izango da, gizonen zein emakumeen txapelketetan. Berdinketa balitz, lehenengo aritu dena izango litzateke irabazle.

6.art.- Altxaldia baliozkotzat jotzeko, ingudeak bai oinarria, bai goiko xafla jo beharko ditu. Altxaldia ontzat goiko xafla jo ondoren emango da.

7.art.- Kirolarien eskuak garbi egongo dira eta magensio-hautsak erabili ahal izango dira, betiere probarekin epaileak kontrolatuta.

8.art.- Kirolariak laguntzaile bat erabili ahal izango du. Honek ezin izango du Epailaren lana tratatu, ezta kirolaria ukitu, ezta materiala ere, ekitaldiak iraun bitartean.

9.art.- Ingudea edo egitura bera hautsiko balira, beste bat ekarri beharko litzateke. Ekitaldia berriz ere hasiko litzateke atsedenaldi baten ondoren, Epaileak ongi irizten dionean.